



ESKOLA LIGAKO PISTAKO PIRAGUISMOKO ESKOLA JOKOEN ARAUDIA



Eskola Kirola
Deporte Escolar

1. Artik- ANTOLAKETA

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko Piragüismo Federazioarekin (aurrerantzean, **BPF**) lankidetzan, Eskola Kiroleko LIGA eta liga hori osatzen duten Lehiaketa Jardunaldi guztiak antolatzen ditu. **BPF**ri dagokio, eta horrek, halaber, Klub Federaturen bati eskuordetu ahal izango dizkio jardunaldiak antolatzea eta gauzatzea.

2. Artik. ANTOLAKETA BATZORDEA

Honako hauek osatuko dute:

- **BPF**aren presidentea.
- **BPF**ren Eskola Kiroleko arduraduna.
- **BPF**aren Ur Bareen arduraduna.
- **BPF**aren Arbitroen arduraduna.

3. Artik. LEHIAKETA BATZORDEA

Jardunaldi bakoitzak bere Lehiaketa Batzordea izango du. Honako hauek osatuko dute batzordea:

- Batzordeko presidentea: Jardunaldiaren ardura duen arbitroa.
- **BPF**k Jardunaldirako izendatutako pertsona.
- Jardunaldia antolatzen duen Klubak izendatutako pertsona.

Erantzukizunak eta ahalmenak:

- Inskripzioak eguneratzea eta dortsalak banatzea.
- Lerrokatu eta irteerak eman.
- Probak behar bezala egiten direla zaintzea.
- Balizko deskalifikazioei buruz erabakitzea.
- Kronometratzea eta iristeko ordena zehaztea, emaitzak erregistratuz.
- Klub antolatzailearekin lankidetzan aritzea emaitzak prestatzen eta onartzen.
- Emaizten akta **BPF**ra bidali.
- Itsasontzietan salbamendu-txalekoen eta flotagarritasun-bitartekoaren erabilera kontrolatzea.
- Edozein erreklamazio erregistratzea eta egon daitezkeen erreklamazioen aurrean epaimahai gisa jardutea.
- Jardunaldi bat atzeratu edo bertan behera utzi erabakitzeke gaitasuna.

4. Artik. PARTAIDETZA

Estropadaren unean Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kirolaren atalean eskola-lizentzia izapidetuta duten bizkaitar guztiek parte hartu ahal izango dute jardunaldi hauetan.

Beharrezkoa da Eskola Kiroleko Lehiaketa Jardunaldian parte hartzen duten guztiek aldeztatik Piragüismo Hastapeneko ikastaroren bat egin izana.

5. Artik. KATEGORIAK

Kategoriak nesken eta mutilen artean banatzen dira:

- BENJAMINA Ligaren hasieran 8 eta 9 urte. (1) Kategoria absolutua.
- ALEBINA "B" Ligaren hasieran 10 urte (1)
- ALEBINA "A" Ligaren hasieran 11 urte (1)
- INFANTILA "B" Ligaren hasieran 12 urte (1)
- INFANTILA "A" Ligaren hasieran 13 urte (1)

(1) Maila bakoitzekoak dira ikasturte hasieran kategorian adierazitako adina duten parte-hartzaileak, baldin eta urte horretako abenduaren 31 baino lehen urteak betetzen ez badituzte.

Parte hartzen duten eskola-ume guztiek dortsala ondo lotuta eta Lehiaketa Batzordeko kideek une oro ikusteko moduan dutela lehiatu beharko dute.

6. Artik. MODALITATEAK ETA ITSASONTZIAK

	<u>Modalitateak</u>	<u>Itsasontziak</u>
• Alebinak, Benjaminak	Kayak	Mini-Kayak Hasiera
• Infantilak	Kanoa eta Kayak	K1 edo C1 Lehiaketakoak

Infantilekoak hastapeneko ontziak erabil ditzakete.

7. Artik. DISTANTZIAK, IBILBIDEA ETA ESTROPADAKO GARAPENA

- Benjaminak 1.000 m.
 - Alebinak 2.000m
 - Infantilak 3.000m
- Irteerak linean egingo dira, modalitatearen eta kategoriaren arabera. Katetoria bateko 10 parte-hartzaile baino gutxiago badaude, irteera berean bi katetoria taldekatu ahal izango dira.
- Itsasontziek irteeran izango duten posizioak itsasontzi bakoitzaren branka irteera-lerroaren gainean lerroatuta egotea izan beharko du.
- Ziabogak gutxienez buia batez seinaleztatu beharko dira, eta ababorrera egin beharko dira, hau da, erloju-orratzen kontrako noranzkoan.
- Irauliz gero, lehiakideak lehiaketarekin jarraitu ahal izango du, baita berriro ontziratzeko kanpoko laguntza jaso badu ere.
- Lanaldi bakoitzeko ordezkarien bileran zehaztuko dira jardunaldiaren ibilbidea, irteeren ordena eta beste edozein berezitasun.

8. Artik. IZEN-EMATEAK

Jardunaldietan parte hartu ahal izateko, Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kirolaren atalean klubek izapidetutako piragüismoko eskola-umeen lizentziak hartuko ditu **BPFk** izena emateko zerrenda orokor gisa.

Klub bakoitzeko ordezkariak egun bakoitzeko bertaratze-zerrenda eguneratuko diote Lehiaketa Batzordeari.

9. Artik. DELEGATUEN BILERA

Lehiaketa Batzordeak bilera baterako deia egingo die klub bakoitzeko ordezkariak, jardunaldi bakoitza hasi baino ordu bete lehenago, bileraren nondik norakoak zehazteko eta dortsalak emateko.

10. Artik. ARBITRAJEA

Piraguismoko Eskola Kiroleko Jardunaldietarako arbitro gisa jardun ahal izango du 18 urtetik gorako edozein pertsonak, baldin eta **BPF** honekin federazio-lizentzia badu jardunaldia egiten den urtean, arbitro-titulua izan ala ez.

Hala ere, Eskola Kiroleko estropada guztietan, Federazioak gutxienez arbitro bat izendatuko du (laguntzailea izan arren), estropadako arbitrajearen **ARDURADUNA** izango dena, **ARBITRO ARDURADUNA** izeneko.

BPFk egokitzen jotzen badu, jardunaldi garrantzitsuagoa edo arbitratzeko zailagoa dela aurreikusten duelako, arbitraje-talde osoagoa eta tituluduna izendatuko du.

11. Artik. SEGURTASUN NEURRIAK

- Erreskate-ontzia edo -itsasontziak: zodiaka edo antzekoa, funtzionamendu-baldintza onetan eta eskatzen den funtzioa betetzeko gai: segurtasuna parte-hartzaileei laguntzean eta erreskatatzean, gutxienez pertsona bat eta haren materiala jasotzeko gaitasuna izatea, etab.
 - Jardunaldiak txanda bakoitzeko 20 parte-hartzaile baino gehiago ez baditu eta ibilbide osoa puntu beretik argi ikusten bada, nahikoa izango da ontzi batekin.
 - Txanda bakoitzeko 20 parte hartzaile baino gehiago badaude, edo ibilbide osoa ikusteko mugitu behar bada, nahitaezkoa izango da gutxienez piraguak izan daitezkeen beste bi ontzi joatea.
- Nahitaezkoa da salbamendu-txaleko homologatua erabiltzea parte-hartzaile guztientzat eta flotagarritasun-elementuak itsasontzietan.
- **Ezinbesteko baldintza da parte-hartzaile bakoitzak igerian jakitea.** **BPFk** ez du inolako erantzukizunik izango edozein parte-hartzaileari **IGERI EGITEN EZ JAKITEAGATIK** gertatutako ezbeharren aurrean, eta Klub bakoitzean ez du erantzukizunik izango partaide bakoitzak igeri egiten jakin behar duela ziurtatzeko. Baldintza hori bete ezean, berariaz debekatuta dago jardunaldi hauetan parte hartzea.

12. Artik. PUNTUAZIOA ETA SAILKAPENA

- **Banakakoa**

Palisten banakako puntuazioa modalitatearen eta kategoriaren arabera esleituko da Ligako jardunaldi bakoitzean, eta honela egingo da, kategoria bakoitzean parte hartzen duten parte-hartzaileen kopurua edozein dela ere:

1. sailkatua	100 + 10 puntu
2. sailkatua	99 + 6 puntu
3. sailkatua	98 + 3 puntu
4. sailkatua	97 puntu
... eta hurrengoak...	

Ligako palisten banakako azken sailkapena palista bakoitzak Liga hau osatzen duten jardunaldi bakoitzean lortutako puntuen baturari dagokionez hartuko da kontuan. Sailkapen horretatik txapelduna, txapeldunordea eta banakako hirugarren sailkatua lortuko dira, modalitate eta kategoria bakoitzean.

- **Taldeka**

Piraguismoko Eskola Liga osatzen duten Jardunaldi bakoitzeko Kluben arabera sailkapena Klub bakoitzeko palistek jardunaldi horretan lortutako banakako puntu guztien baturari dagokionez hartuko da kontuan. Sailkapen horrek puntuazio hau emango die klubei jardunaldi bakoitzean:

1. Sailkatutako kluba	100 + 10 puntu
2. Sailkatutako kluba	99 + 6 puntu
3. Sailkatutako kluba	98 + 3 puntu
4. Sailkatutako kluba	97 puntu
... eta hurrengoak...	

Ligako klubak arabera azken sailkapena Liga hau osatzen duten jardunaldi bakoitzean klub bakoitzak lortutako puntu guztien baturari dagokionez hartuko da kontuan. Sailkapen horretatik, Bizkaiko Piraguismoko Eskolarteko 2. Ligako Txapelduna, Txapeldunordea eta Hirugarren Sailkatua izango dira, hurrenez hurren.

13. Artik. SARIAK

Trofeoak edo dominak emango zaizkie modalitate eta kategoria bakoitzeko lehen hiru sailkatuei, baita sailkatutako lehen hiru klubei ere, "Eskolarteko Bizkaiko Piraguismo Txapelketa" rekin bat datorren jardunaldian.

ERANSKINA 1

BPFk eta Eskola Kirolaren Jardunaldi bat antolatzen duen Klubak honako erantzukizun-konpromiso hauek eta bi aldeen arteko lankidetzaz-hitzarmena ezartzen dituzte:

KLUB ANTOLATZAILEAREN ERANTZUKIZUNAK:

- Segurtasun-neurrien ikuskapena eta erantzukizuna.
- Estropada-eremua behar bezala seinaleztatzeko buiak eta tresnak jartzea.
- Klubetako ordezkariak dortsalak ematea eta banatzea.
- Ibilbidea zehaztea, **BPF**ekin lankidetzan.
- Sariak eta trofeoak. Banaketa erosi eta izendatzea, **BPF**ekin lankidetzan, Bizkaiko Txapelketaren jardunaldirako.
- Dagozkion zerrendak – kategoriak, irteeren ordena... –, sailkapenak eta jardunaldiaren emaitzak kudeatzea eta lantzea, Lehiaketa Batzordearekin lankidetzan.

BIZKAIKO PRIAGUISMO FEDERAZIOAREN ERANTZUKIZUNAK:

- Lehiaketen Kirol Jardunaldien egutegia eta horiek antolatzeko eta parte hartzeko araudia egitea.
- Jarduera guztiak koordinatzea, federazio honek izendatutako eskola-kiroleko arduradunaren bidez.
- Arbitroak izendatzea. Arbitraje-azpiegiturako taldea arbitro arduradunari ematea: kronometroa, megafonoa eta talkiak.
- Ibilbidea zehaztea, klub antolatzailearekin lankidetzan.
- Klub ko-antolatzaileen kontraprestazio ekonomikoa.